

## Nazio ikurrei buruz orain arte eztabaida nondik nora joan den laburbilduta (190530)


### 1. Izena

- Asko **Euskal Herriaren** alde kokatzen ari dira.
- Beste multzo nabarmena **Nafarroa-Nabarraren** alde dago (Batzuek euskal jatorrizko izena erabiltzea proposatzen dute Kanpionek bezala: Nabarra).
- **Euskadi** hitza EAerekin nahastu dela eta gaizki ulertzeak sortzen ari direla esaten dute askok.
- **Baskonia** erabiltzekotan Gaskuina barne egon beharko litzatekeela, historikoki horrela izan delako.
- Proposamen berriak ere badaude: **EH-Nabarra**, **NabarrE** edo **Euskal Herri Nabarra** (Nabarra eta Euskal Herria izen biak batzeko)

### 2. Armarria

- Gehiengo handi-handi bat **Zazpiak baten** alde dago.
- Bi proposamen jaso dira orain dela gutxi, Nafarroako armariari presentzia handiagoa emateko (Eneko del Castillo) eta baita itsasoa (gure 8. lurraldea) eta diaspora (beti ahazten ditugun nebarrebak) kontuan hartzeko.

Eneko del Castillok proposatutako armarrria:




Beste batzuek Nafarroari zentraltasun handiagoa eta Itsasoa eta Diaspora kontuan hartzen dituen armarrria proposatu dute. Izenetan ez dira sartzen eta aukera batzuk ematen dituzte:




### 3. Bandera

Izenean gertatzen den berbera gertatzen da hemen. Batetik Euskal Herria izenaren alde dauden gehienak Ikurrinaren alde daude eta, bestetik, Nafarroaren izenenaren alde daudenak Nafarroako bandera zaharraren alde (ez kateekin). Orain arte jasotako iritzi gehienak bi multzo hauetan kokatuta daude.




Proposamen berriak ere badaude:

**a) Ikurrina izarduna.** Naziogintza taldeak ikurrinari izarra jartzea proposatu du, independentziaren bandera dela irudikatzeko, Katalunian senyera estelada bihurtu duten antzera proces mugimenduak ikur berria behar zuelako:



Izen biak batzearen alde dauden batzuek bi bandera uztartzeko proposamenak egin dituzte, askotan bi bandera edo armarrri batu edo elkartu direlako (Frantzia errege-erreginek Nafarroakoa eta Frantziakoa batu zituztenean):

#### b) Nabarrina



(euskalnafarrek odola biengatik isuri dutelako Noainen... eta azken 130 urte hauetan)

### c) Ikurrinaren eta nafarroakoaren uztarketa



Badira ere gure herria beste modu batera irudikatu beharko genukeena proposatu dutenak:

### d) Askatasunaren bandera



### e) Laburuduna



## 4. Ereserkia

Ekarpen gutxi egon dira baina egon direnak Gernikako Arbolen alde kokatu dira. Jose Mari Espartzak honako arrazoiak eman ditu:

- Iturraldek esan zuenez Gernikako Arbola da gure ereserki nazionala da.
- Askatasunaren ikurtzat hartu zen eta Tuteratik Baionaraino. Adibidez, alemaniarrengandik askatzean Gernikako Arbola eta Marseillesa kantatu zuten Parisen.
- Iparragirre horregatik kanporatu zutelako. Lau aldundiek pentsio bat ordaindu zioten Iparragirreri sortzeagatik eta hain kanta garrantzitsu bihurtzeagatik.
- 1893ko San Ferminetan Gernikako Arbola debekatu zuten baina azkenean baimena eman behar izan zuten. Zezen bakoitzarekin Gernikako Arbola kantatzen zuten. Olerki bat egin zuten, “el toro asoma el hocico y la plaza canta el zortziko”, “Rueda el toro hecho una bola y la plaza recita el Gernikako Arbola”. Tafallan eta Tuteran erderaz kantatzen ziren
- Zergatik bonbardatu zuten Gernika? askatasunen ikurra zelako.

- Kontsentsu politiko handia izan duelako
- Gora eta Gora eta Nafarroako Gorteetako ereserkiak ez dira asko zabaldu.
- Gernikako Arbola ez da ofiziala eta hori ona da.

Beste ekarpenen bat ere egon da, erdi txantxetan: *Maite zaitut*, gure herriak samurtasuna behar duelako.

## 5. Aberri Eguna eta egutegi nazionala

### Aberri Egunaren data (jasotako proposamenak):

- Gehienen iritzia: Aberri Eguna dagoen moduan utzi behar dela uste dute, datari dagokionez.
- Naziogintza taldea. Bi egun proposatu ditu, Katalunian, Flandrian edo Eskozian bezalaxe: JAI NAZIONAL POLITIKOA eta JAI NAZIONAL KULTURALA. Lehenengoa JAI NAZIONAL POLITIKOA ABERRI EGUNAK izan beharko luke, data aldatuta eta apirilean egin, kutsu erlijiosoak ez izateko. Jai nazional kulturala, abenduaren 3an, Euskararen Egunean. Katalanek ere Diada (Jai nazional politikoa) eta Sant Jordi (Jai nazional kulturala) dituzten moduan.
- Oraingo Aberri Egutetik hurbil baina ez Aste Santuan eta egun finkoago batean: Martxoaren 25etik hurbilen dagoen igandean, gure antzinako urte hasiera, berreskuratzeko eta Aste Santuan jende asko oporretara joaten denez, egun aproposa jadanik ez delako [ujue-uxue.sabeis-que-el-primer-dia-del-ano-de-la.html](http://ujue-uxue.sabeis-que-el-primer-dia-del-ano-de-la.html)

### Aberri Egunaren lekua (jasotako proposamenak)

- Udalbiltzak herri guztietan ospatzea proposatu zuen aspaldi. Ideia interesgarria da, alderdikarien gainetik herritarrak berriro elkartzen hasteko.
- Sakanan, Urdiaingo zelaietan, Euskal Herriko erdigune geografikoaren punturik hurbilenean.
- Txandaka hiriburuetan, hasieran bezala: Bilbon, Donostia, Gasteiz, Iruña, Baiona (ez zen ospatzera heldu).

### Aberri Egunaren antolakuntza (jasotako proposamenak)

- Alderdien esku ez uztea (Katalunian bezala) eta mota eta herri guztietako 500 bat elkarte batu, Gure Esku? eta nahi duten guztien artean (alderdiak, sindikatuak...) baina herri mugimenduaren esku egotea.

**Orreaga Eguna.** Orreaga Fundazioak urtero antolatzen du, abuztuaren 15ean. Beste elkarte batzuek ere ospatzen dute egun hori. Horrekin lotuta agian, Zabalate Eguna ere ospatu litekeela esan du batek, bisigodoen aurka 200 urtez irabazteagatik.

**Abenduaren 3.** Batek haxe proposatu du: Aberri Eguna Abenduaren 3an egitea Euskararen eta Nafarroaren Egunean.

## **Nazio Egutegia**

Udalbiltzak proposatu zuena ondo ikusten da: Martxoak 8 Emakumearen Eguna, Ekainak 24 San Juan eta Abenduak 3 Euskeraren Eguna.

Beste proposamena: utzi oraingoz Espainiako eta Frantziakoak ukitu gabe baina Euskal Herri osoan jaiegun bat denok batera ospatzea lortu: Abenduaren 3. Arrazoiak: euskeraren eguna eta oraingo Nabarraren eguna izanik errazago litzateke. Sindikatuen laguntza ezinbestekoa da. Edo martxoak 8 jai egun bihurtzeko aukerak egon daitezke emakumeekin elkarlanean.

## **6. Eslogana**

Proposamen bat jaso da: "Herria eta hizkuntza" .

Txostenean historikoki izan ditugun guztiak ikusi daitezke:

- Aberri askearen alde, jende librea, jaiki
- Euskotarren aberria Euskadi da
- Gora Euskadi askatuta...

## **7. Nortasun Agiria**

- Udalbiltzak EHNarekin jarraitu nahi du.
- ENA elkarteak biak uztartu behar direla uste du.

## **8. Domeinua**

- .eus da adostasun gehien duena.
- Eneko del Castillo ".na" hartuta dagoenez ".nv" proposatu du, Nafarroa nazio izena proposatu duelako.